

KOLONBIAREN ZAURIA

Utopiaren zeharbideak ibili gaur, orbainak irabazteko bihar

 **JENDARTEA** / Maddi Txintxurreta Agirregabiria

Ez dago orbainik, zakarra dirudien arren, edertasunik ez duenik. Istorio zehatz bat kontatzen da bertan, minen bat. Baina baita bere amaiera ere. Orbainak, beraz, memoriaren josturak dira, sendatzen gaituen erremate inperfektua. Zauriak inoiz ez ahazteko denborak aurkitzen duen forma». Piedad Bonnett idazle kolonbiar ezagunaren poema da honakoa, zeinari Kolonbiako Gobernuak ukatu egin baitzion, kritikotzat dituen beste hainbat idazleri bezala, 2021eko Madrilgo Liburu Azokara agertzea.

Kontua da Kolonbia oso-oso-rik arrakalatzen duen zauria bizi dagoela, ez dela oraino orbaindu. Eta zauri hori ixteko puntada ematen duenari segituan erortzen zaio gainera Ivan Duque presidentearen Polizia. Horrela ari da 'Paro Nazionala', herrialdeko historia garaikidean izan den mobilizazio garrantzitsuena, itozten saiatzen agintari eskuindarra.

2019ko azaroan piztu zen protesta bolada herrialdean, herritar xumeenen kontrara diseinatutako zerga erreforma aitzakia. Robin Hood-en antzera jokatu zuen Duquek, baina alderantziz: herritarren %42,5 pobreak diren herrialdean (Estadistikako Administrazio Sail Nazionalaren arabera), erreformaren bitartez Exekutibok eskuratu asmo zuen diruaren %27 soilik jarri beharko lukete enpresek.

Pandemiaren kolpeak lokartu ostean egin zuen eztanda berriz; Duqueren gobernuak koronabirusa baino hilgarriagoa delako iritzia dutenek hartu zituzten kaleak, atzera ere, 2021eko apirilaren 28an, des-

Bada zubi bat Hernani eta Kolonbia lotzen dituen, ahalbidetzen duena hango deiadarra hemen entzutea. «Alerta gorrian» da herrialdea, eta herritarrek lau haizeetara zabaltzeko beharra dute, zabaltzeko beharra dute, Ivan Duqueren Gobernuak gidatzen duen giza eskubideen urraketa sistematikoa.

berdintasun izugarriak eta polizien bortizkeriak zeharkatu-ta. Aurrera egiteko geldirik da Kolonbia. Eta lortu zuen Duquek atzera botatzea erreforma fiskala. Mobilizazioek, baina, asmo handiagoak zituzten. Manifestazioek bi hilabetez jarraitu zuten, eta pizgarria zerga erreforma izan bazen ere, milaka herritarrek protestan jarraitu zuten hainbat arrazoi-rengatik; besteak beste, osasun erreforma etetea, Polizia

Nazionala eraldatzea, gizarte liderren eta gerrilletako borrokalari ohien hilketen aurka egitea edo Bake Akordioa errespetatzea.

Hau guztia herrialdearen norabidea alda dezaketen hauteskundeetarako lau hilabete eskas falta direla ari da gertatzen, eta litekeena da manifestazioak ordura arte luzatzea.

Egiturazko arazoak ditu Kolonbiak, halako erantzunak behar dituenak. Eta problemati-

Andra Hernandez, Ane Ortiz eta Omaira Castellanos goian; Gabriel Andres Arevalo eta Astrid Castellanos behean.
Jon URBE | FOKU

ka asko eta anitzak ari dira azaleratzen azken hilabeteetan Paro Nazionala sostengatzen duten milaka pertsonek osatutako kolektiboetan, elkarren artean desberdinak badi-ra ere, elkarrekin ari baitira Paroaren aterkipean. Lubaki lanetan ari dira inurriak, dena eraldatzeko: hala migranteen eskubideak, nola LGTBI+ kolektiboarenak, berdin emakumeenak.

Kolonbiako zauri erraldoi horretatik sortutako erreten batek zuzen lotzen du herrialde latinoamerikarra eta Euskal Herria. Hernani, zehatzago. 2020ko maiatzean, Mundu Berriak elkarteak lankidetza proiektu bat abiatu zuen Kolonbiako Antonio Nariño Unibertsitatearekin (Duitama, Boyaca) eta Hernaniko Udalaren babesarekin. Eta pasa den azaroaren 6an, "Kolonbia, Venezuela eta Hernaniren arteko jakintzak eta esperientziak partekatuz: berdintasuna, sexu aniztasuna, aterpea eta migrazioak" izeneko jardunaldia egin zuten Gipuzkoako herrian berriki martxan jarri den Kulturarteko Plaza Feministan.

Proiektuaren helburu nagusia da, Ane Ortiz sexologo eta Mundu Berriak-eko kideak dioenez, Venezuelako biztanleria migratuarekin lanean diharduten aholkularitza juridikoetan -Kolonbiako unibertsitateetan bokazio «borrokalari eta transformatzailea» duten ikasle taldeek osatutakoak- «genero ikuspegia eta sexu eskubideen lanketa» txertatzea.

Horrela, jardunaldien bezperan eta Euskal Herrira iritsi biharamunean, Mundu Berriak elkarteak gonbidatutako lau giza eskubideen defendatzaile kolonbiar GAUR8rekin



2019an piztu zen protesta bolada Kolonbian, baina 2021eko apirilean indar handia hartu zuen Paro Nazionalak. Indar handiz erantzun zuen Gobernuak ere: 80 hildako bi hilabetean

elkartu dira Kulturarteko Plaza Feministan, haien errealitatearen eta berau iraultzen saiatzeko egiten dituzten lanen berri ematera.

MAMA ETA SIAMESAK

Euritan hartu ditu Euskal Herriak lau bisitariak, baina «tira, han ere horrela geunden», diote. Etxean bezala, beraz, baina kalean topatutako giroagatik bainoago, aterpean, Kulturarteko Plaza Feministan, hartu dituzten moduarengatik. Sarri eskertu diote Hernanin harre-
ra egin dieten kideei etxean bezala sentiaraztea. Behin eta berriz nabarmendu dute nazioarteko elkartasunaren garrantzia. «Beharra», beraien kasuan.

Omaira Castellanos, Andra Hernandez, Astrid Castellanos eta Gabriel Andres Arevalo dira, eta Kolonbia erdialdean dagoen Boyaca departamenduan egiten dute lan giza eskubideen defentsan. «Boyaca, Kolonbiako departamendu segurue-
na», aurki daiteke sarean bilaketa azkar batean.

Ez lirateke ados egongo handik Euskal Herrira heldu diren lau kideak. Ekipajea dakartzate mehatxuak, borrokan hildako kideak, Gobernuak belarri atzera itsatsitako beldurra. Edo beldurraren galera. «30 urte daramatzat defendatzaile gisa, orduan, koraza bat sortzen duzu. Horrenbeste denbora igaro eta gero, beldurra ez da existitzen», dio Astrid Castellanos.

Tunjan egoitza duen Kolonbiako Unibertsitate Pedagogiko eta Teknologikoko (UPTC, gaztelerazko siglengatik) Medikuntza Eskolako irakaslea da Astrid Castellanos, eta 2008tik geroztik, unibertsitate horretako Emakumeen Etxea zuzentzen du.

Ivan Duqueren Gobernuak «sistematikoki» erabiltzen du indarkeria herritarren kontra. «Indar militarrek eta instituzioak siamesak dira», dio Omaira Castellanos



Mundu Berriak Hernanin egindako jardunaldien momentu bat. Jon URBE | FOKU

Mamá esaten dio Andra Hernandezek, kideetan gazteenak. 24 urte ditu, eta erreferentetza du Astrid Castellanos, «milaka gazteren ama». Boya-

cako LGTBI+ sarea zuzentzen du Hernandezek, Femidiversas elkarteko kide da, ikasleen mugimenduaren parte, Zuzenbideko ikasle, Trans Bizi-espe-

rientzia duten Pertsonentzako Ekintza eta Laguntza Taldeko (GAAT Fundazioa, gazteleraz) kide, besteak beste.

Omaira Castellanos abokatu eta emakumeen eskubideen defendatzailea da, irakaslea eta aktibista. «Taller de Eva» izeneko ekimena sustatzen du, zeinaren bitartez emakumeen ahaldunderako tresnak lantzen baitituzte.

Gabriel Andres Arevalo, berriz, «bizitzaren aldeko militantea da». Mundu Berriak elkarteko kide da, abokatu eta soziologoa.

Guztiak giza eskubideen defendatzaileak izanik, kezka bizi dute Kolonbian gertatzen ari dena. «Kolonbia desberdintasun sozial gehien dituen munduko herrialdeen artean dago, eta bertan jasaten ari den indarkeria instituzionalizatua da. Estatuak giza eskubideen defendatzaileen kontra egiten du, emakumeen kontra, nekazarien kontra. Indar militarrek eta instituzioak siamesak dira», laburtu du Omaira Castellanos.

HILTZEN ISILARAZI

Estatuaren eta indarkeriaren arteko anaitasuna are gehiago estutu da 2019an herritarren protestak hasi zirenetik. Latinoamerikako «demokraziarik zaharrena» esaten dioten hori falazia dela iritzi dio Castellanos, «biolentzia erabiltzearen bitartez boterean mantendu den sistema besterik ez da». Horrexegatik, Omaira Castellanos dioenez, hartu zituzten berriz ere kaleak herritarrek, pandemiak gogor jo zuen herrialdean, «Gobernua pandemia baino arriskutsuagoa da» lelopean.

«Orduan masiboki atera ginen kalera. Ni Bogotan izan nintzen, sekula egin den ma-

nifestaziorik handienera. Estatuaren erantzuna izan zen jendea sistematikoki hiltzea; apirila eta ekaina artean 80 pertsona hil zituen, horiek erregistratuta daude. Horrez gain, badira desagertuak, normalizatutako indarkeria bat, errefuxiatu gisa ihes egin behar izan duten pertsonak», esplikatu du.

Praktikan, Kolonbia «setio egoeran» dela salatu du aktibista feministak. Beldurra erabiltzen dutelako ezer alda ez dadin, milaka pertsona isilarazteko: «Estatuak jokatzeko du esanez 'protestan ari diren hauek guztiak hiltzen ditut ikas dezazun kalera ateratzen bazara zure zigorra izango duzula'».

LUBAKIETARA: EMAKUMEAK

Ikuspegi orokorra besterik ez da Omaira Castellanos azalduakoa. Kolektibo zaurgarrietan jarritz gero begirada, egoera are larriagoa da. Emakumeengan, LGTBI+ kolektiboko kideengan eta Kolonbiara atzetutako venezuelarren errealitateengan, besteak beste, jartzen dute fokua Boyacako lau aktibistek.

Emakume baten bizitza Kolonbian, zehazki Boyacan, ez da erraza, lau kolonbiarren esanetan. Omaira Castellanos dio Boyaca oso departamendu «kontserbadorea» dela, Elizaren eragina handia dela, eta «emakumeen eskubideekin, sexu askatasunarekin, lotutako guztia oso zaila» dela —«unibertsitate bateko zuzendariak pre-
serbatiboak banatzea debekatu zuen Jainkoaren kontrako ekintza zela esanda», agertu du Gabriel Andres Arevalok; «guri, unibertsitate publikoan, pre-
serbatiboaren makina kendu ziguten», Astrid Castellanos; «guri kopa menstrualaren in-



guruuko tailer bat atzera bota zигuten uste zutelako kopa planifikaziorako tresna zela», Omai-ra Castellanosek-.

Paro Nazionalaren protesten testuinguruan, Castellanosek esan du Poliziak erabiltzen duen indarkeriaren beste molde bat bortxaketa eta sexu erasoena dela. Manifestazioetan emakumeek duten presentzia gutxitzeko estrategia da, bere ustez. Berak, Taller de Eva dinamikaren bitartez, emakumeen ahalduntzerako bideak eta haien kontrako indarkeria prebenitzeko estrategiak jorratzen ditu, besteak beste.

Baina ez da erraza indarkeria sistematikoki darabilen gobernu batek gidatutako herrian eskubideak defendatzea, departamendu kontserbadore batean sexu askatasunaz hitz egitea ez den bezala. Astrid Castellanosek zuzentzen duen Emakumeen Etxean lau lan lerro garatzen dituzte: generoan oinarritutako indarkerien biktimei arreta integrala eta pre-

bentzioa, zaurgarritasun egoerari dauden herritarrei zuzendutako arreta eta akonpainamendua, politika publikoen garapena, jarraipena eta ebaluazioa eta LGTBI+ kolektiboko herritarrei arreta.

Estigmatizazioa eta mehatxuak jasan ditu Astrid Castellanosek egiten duen lan horrengatik. «Nire kasuan, mehatxuak jaso ditut ezkertiarra izateagatik eta indarkerien biktima diren andrazkoen salaketak babesteagatik», esan du.

Babes berezia jasotzen du, zehazki, gizon baten mehatxuen-

Duqueren gobernuak Paro Nazionalarekin lotu zituen migrante venezuelarrak «froga gabe»: «Hirietatik masiboki bota zituzten, Maduroren gobernuako agente infiltratuak zirela egotzita»

«Kolonbia paradisu kapitalista modura saldu dute, venezuelarrak etor daitezen. Baina barne politika abandonuarena da», esplikatu du Gabriel Andres Arevalok

Iruñean Kolonbiako herritarrekin elkartasunez egindako elkarretaratzea.
Jagoba MANTEROLA | FOKU

gatik. «Abokatua da, unibertsitatean magistratua. Mugimendu neonaziak bultzatu ditu eta bere hiru bikotekide ohien kontra bortizki egin du eraso. Ezkertiarra eta emakumeen defendatzailea izateagatik, zangabatean ikusi nahi nau ahoa euliz beteta, hori da mehatxua», esplikatu du Emakumeen Etxeko zuzendariak.

Bere kideen kontrako erasoak ere izan direla gaineratu du Astrid Castellanosek. Paro Nazionalan sexu indarkeria kasuak artatu behar izan dituzte. «Baina erakunde gisa ikusgarritasuna dugunez, Poliziarekin, defentsa erakundearekin, instantzia guztiekin hitz egin ahal izan dugu eskubideak defendatzeko», gehitu du.

AZPIMUNDUKO MIGRANTEAK

Bestalde, Mundu Berriak-ekin lankidetzan, migranteei zuzendutako talde juridikoetan genero perspektiba txertatzeko lanean ari dira aktibista kolonbiarrak.

Izan ere, Gabriel Andres Arevalok azaldu duenez, konturatu ziren migranteen giza eskubideak babesteko unibertsitateetan sortutako taldeetan ez zituztela antzematen generoari lotutako indarkeriak, eta genero perspektibadun formakuntza zikloak ematen hasi ziren. Kolonbiako 30 udalerrri inguruk osatzen duten sare baten parte dira talde juridiko espezializatu hauek eta ia 300 pertsonak jasoz zituzten formakuntzak.

Kolonbiara migratu duten venezuelarren zaurgarritasun bereziaz hitz egin du Arevalok. Kontatu du nola «Venezuelaren kontrako estrategia geopolitikoak» prozesu migratorio handi bat eragin duen: bi milioi venezuelar inguru daude egun Kolonbian.

Migrante horiei, Arevalok dioenez, Estatuak ez die esku-biderik aitortzen, «ikusezin» egiten ditu. Are, herrialdeak ez du migrazio legerik.

Mundu Berriak-eko kidearen esanetan, Kolonbiako Gobernuak «estrategia bikoitza» darabil migranteekin: «Kanpo politikari dagokionez, hesi diplomatikoa ezarri zaio Venezuelari. Testuinguru horretan, Kolonbia paradisu kapitalista modura saldu dute, venezuelarrak etor daitezen. Baina barne politika abandonuarena da. Kolonbian jaioetako guraso venezuelarren seme-alabak, denbora luzez, apatridak izan ziren. Eta denbora luzez, migrante venezuelarren %50 inguru egoera irregularrean daude, hau da, Estatuak ez ditu aitortzen eskubidedun subjektu gisa. Gehienak emakumeak dira, 15-35 urte bitartekoak. Ez dute enplegu formalik, ez dute osasun zerbitzuetarako aukerarik, ezta beraien bizitzari ekitekorik ere. Azpimunduan daude».

Gobernua migranteekin akordatu zen Paro Nazionalaren testuinguruan, nahiz eta Mundu Berriak-eko kideak segurtatu duen gehiengoak ez duela mobilizazioetan parte hartzen. Halere, Duqueren exekutiboak «froga gabe» protesta mugimenduarekin lotu zituen, eta «barne etsai» bihurtu. «Hirietatik masiboki bota zituzten, Maduroren gobernuako agente infiltratuak zirela egotzita», agertu du.

IZENEZ GABETUAK

Beste edonon bezala, Kolonbian ere, areago egungo indarkeria boladan, intersektionalitateak baldintzatzen du pertsonaren izatea, «biolentzia ezberdinen metaketak», Hernandezek zehaztu duenez.

Bere esanetan, Paro Nazionalaren borrokak «modu berezian» eragiten die LGTBI+ kolektiboko pertsoneri, gehiago pertsona transei. Haien kontrako biolentzien sorburu nagusietako bat Polizia dela dio, eta horrek zaurgarriago egiten ditu manifestazioetan. «Gutako asko mehatxatuta gaude, sexu erasoak jasan ditugu, muntaia judizialak», dio Boyacako LGTBI+ sareko kideak.

Hernandezek aipatutako interseksionalitatearen eraginaren adibide, ekainaren 28an, harrotasunaren egunean, taxi gidari batzuek hiltzeraino jipoitu zuten emakume trans bat Tunjan. Migrante venezolarra zen Adriana Diaz.

Bereziki larria baita egoera migranteen kasuan, LGTBI+ kolektibokoak badira. Hernandezek kontatu du pandemiak izugarri eragin diela trans migranteei, gehiago sexu langileak badira. «Jatekorik ez zutenei» lagundu behar izan diete, kale egoeran zeudenei.

Instituzioetara jo behar izan zuten, laguntza humanitarioa eskatzera. Egoera zaurgarrian zeuden sexu langileen izenabizenak jaso zituzten zerrenda batean, Boyacako erakunde publikoek jatekoa bana ziezaieten. Baina Constanza Ramirezek, Duitamako alkate izandakoak, zerrenda hau baliatu zuen migranteen izenak identifikatzeko. «Beraien etxetan agertu ziren, deika hasi ziren, herrialdetik joan behar zutela esanez. Noski, ezin zuen hori egin. Datuok laguntza humanitarioetarako ziren», esplikatu du Hernandezek. Datu bat eman du: Kolonbian, emakume transen batez besteko bizi esperantza 27 urtekoa da.

Transen kontrako biolentzia ez da soilik jipoietan edo poliziengan gorpuzten. Eskubide-

en urraketak administrazioetan hasten dira, oinarrizkoena ukatuz: izena. Hernandezek salatu du migranteak kolektibo pobretuak direnez, ezin dutela ordaindu, transak badira, dokumentazioan izena aldatzeko eskatzen den zedula: 250.000 peso kolonbiar, gutxi-asko (55 euro inguru).

HAUTESKUNDEAK, ORBAINAK

Maiatzean izango dira Kolonbian hauteskunde presidentzialak eta, «lehenengo aldiz, badirudi ezkerak Errepublikako presidentetza irabaz deza keela eta legebiltzarkide de zente lortu Kongresu Nazionalan», esan du Gabriel Andres Arevalok. Baina ez da egungo Gobernuaz fido: «Narkotrafikoak eta eskuinak aliantza bat dute hauteskundeak ustelkeriaren bideetatik irabazteko. Hauteskundeetako iruzurrez hitz egiten ari gara. Hitz egiten ari gara oposizioko mugimendua hiltzeaz».

Hauteskundeetan iruzurra egongo dela esateko hiru mailako «konspirazio» bat atzeman du Arevalok: batetik, nazioarteko mailan sortzen diren aliantza ultrasokundarrak –eta marko horretan Voxek paper garrantzitsua duela dio–, bestetik, Kolonbian eskuinak duen botere metaketa eta, azkenik, narkotrafikoa. «Hiru maila hauek auresaten dute iruzurra egon daitekeela, Paro Nazionala biderkatu daitekeela eta 2022a Kolonbiak bizi duen urterik mugituena izan daitekeela», esan du.

Arevaloren hitzetan, normalean, hauteskundeetan iruzurra ostean osatzen dira gerriak. «Bake Itun bat sinatzerik gator, eta ez dugu itzultzerik nahi klase horietako logiketara. Baina eskuinak interesa du logika horrek eztanda egin de-

Datu bat eman du Andra Hernandezek: Kolonbian, emakume transen batez besteko bizi esperantza 27 urtekoa da. 35ekoa Latinoamerikan

Astrid Castellanos: «Nik hainbeste urte eman ditut erresistentzian, eta ez dut oraindik aldaketa ikusi. Uste dut ez dudala ikusiko. Baina optimista naiz»

zan». Esperantza ez dute galtzen, halere. «Guk uste dugu irabaziko dugula», baieztatu du Arevalok.

Hauteskundeek ekar ditzaketen onurak baino gehiago, aldaketa egiturazkoagoak behar ditu Kolonbiak halere, eta Andra Hernandez neurritsu agertu da: «Aldaketarako esperantza ez dut galduko, baina uste dut nik ez dudala ikusiko», dio 24 urteko gazteak.

«Belaunaldi aldaketa bat behar da, kontzientzia organizatiboa piztea».

«Nik hainbeste urte eman ditudan erresistentzian, eta ez dut oraindik aldaketa ikusi. Uste dut ez dudala ikusiko. Baina optimista naiz», esan du Astrid Castellanos. Optimista da Omaira Castellanos ere: «Niri mugimenduan ikusi dudan esperantza eman dit. Ez nuen uste horrelako mobilizaziorik ikusiko nuenik eta gertatu da». «Bai, utopiaren bideetatik gabiltza oinez», gaineratu du Andra Hernandezek.

Pausoz pauso, puntadaz puntada, bidea egiten ari dira Kolonbian. Eta noizbait zauria ixtea lortuko badute, orbain horretan irakurri ahal izango dute ondorengoek nora dararmaten utopiaren bideek.

Mundu Berriak elkarteak
Hernaniko Kulturarteko
Plaza Feministan
antolatutako
jardunaldietako irudia.
Jon URBE | FOKU

